

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Idazkari-Kontuhartzaile lanpostua betetzea

Alkatetzaren Dekretua

Nola eta Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Dekretuaren arabera (1732/1994 Errege, uztailaren 29koa), Aramaioko Udalaren lanpostu hori estatu mailako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordeta dagoen, idazkaritza-kontuhartzaitza azpieskalako funtzionarioentzat.

Nola eta lanpostu hori betetzen duenak adierazi duen uko egiten diola hari hurrengo egunetan.

Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.h) eta 92 bis artikuluan xedatutakoa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa).

Honen bidez, hau ebatzi dut:

Lehenengoa: Hamabost egun baliouduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiek parte hartzeko eskaerak aurkezteko; xedea da Aramaioko Udalaren idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izaeraz betetzea. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egin behar dira.

Estatu mailako gaikuntza duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean dagokion Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko hautagai moduan.

Bigarrena: Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleituta, 1994ko abenduaren 31ko derrigortasun datarekin. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena: Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako prozedurarekin jarraitzea.

Bosgarrena: Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten duen lehenengo bilkuran.

Aramaion, 2016ko uztailaren 13an

Alkatea

LIERNI ALTUNA UGARTE

Eranskina

"..... jaunak/andreak (NAN:; jakinarazpenetarako helbi-dea:, udalerria:; telefonoa:), estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa izanik, azpieskalakoa, eta egun toki erakundean..... lanpostua betetzen duelarik, hau

Adierazten du:

Jakin du Aramaioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko dela, eta Gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko Errege Dekretuaren 30. artikuluan xedatutakoari jarraituz (1732/1994 Errege Dekretua, uztailaren 29koa), lanpostu hori behin-behineko betetzeko aukera dagoela.

Uste duela lanpostu horri dagozkion zereginak zuzen betetzeko beharrezko eskakizunak betetzen dituela, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, eta bidezko diren izapideak bete eta gero.

Eskatzen du:

Aramaioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua behin-behineko izendapenez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

- NANaren fotokopia
- Estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioa naizela egiaztatzen duen agiria.
- 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatua duela ziurtatzen duen agiria.

.....n, 2016koaren.....(e) an.

Sinadura....."